

① **Begiratu erdi aroko hiriaren marrazkiari eta erantzun hurrengo galderak:**

- Nola babesten zuten hiria?
- Nolakoak ziren eraikinak, altuak ala baxuak?
- Zer eraikin nabarmentzen zen gainerakoen artean?
- Nolakoak ziren kaleak?
- Zer jarduera egiten zen plazan?

② **Aipatu zer estamentutan banatzen zen kristau-erresumetako gizartea eta adierazi nork osatzen zuten estamentu horietako bakoitza.**

- _____ : _____
- _____ : _____
- _____ : _____

③ **Erantzun.**

- Zer ziren burgoak?
- Zer izen zuten bertako biztanleek?
- Nork gobernatzen zituen hiriak?

④ **Markatu esaldi hauek zuzenak (Z) ala okerrak (O) diren.**

Merkatariak gremiotan bildu ohi ziren. ⇨ ____

Artisauak hiru kategoriatan banatzen ziren: maisuak, ofizialak eta aprendizak. ⇨ ____

Jauntxoen kontseilu batek gobernatzen zituen hiriak. ⇨ ____